

Iaz baino gehiago izan arren, hizlarien artean ere emakumeak gutxiengo dira EKT ikastaroan

2009/02/08

Aurten **iaz baino emakume gehiago** dago **hizlarien artean** Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoan, baina emakumeek **gutxiengo izaten segitzen dute** oraingoan ere.

Lehen edizioan 35 hizlarik hartu zuten parte EKT ikastaroan. Horietatik emakumeak 4 baino ez ziren izan: hizlari guztien %11. Aurten, berriz, hizlari gehiago etorriko dira Huhezira, 45, eta horietatik emakumeak 12 izango dira, alegia, hizlari guztien %26. Iazkoa halako bi baino gehiago.

Aurrekoan gogorarazi genizuen **ikasleen artean** emakumeak zelan pasatu diren urtebetean nagusi izatetik (%58) gutxiengo izatera (%28). Zoritxarrez, ez dugu daturik azaltzeko bilakaera horren zergatia.

